

J A I A K

TEOREMA

TABERNAN

Adin guztikoak Aste Nagusiko egunetan

A.ZEBERIO / DONOSTIA

Donostiako Gros auzoan dagoen Teorema tabernara bisitatxo bat egin genuen, Aste Nagusiko jaiak ze girotan ari ziren igaroten ikusi asmoz. Taberna ez da handia, baina kanpoan mahai eta eserleku ugari bait ditu.

Hemezortzi urtetik hogeit urte bitarteko gazteak ibiltzen dira urtean zehar taberna honetan; baina Aste Nagusiko egun hauetan, adin kontua pixkat ahaztuta gelditzen da eta adin guztietako jendea izaten da bertan.

Aste Nagusiak ez dio galerarik ekartzen Teorema edaritegiari, baina bere nagusiaren esanetan, irabazi gehiegirik ere ez. Nahiz eta tabernan inoiz ez izan jendefaltarik, Aste Nagusiko egun batean bakarrik izaten da jendetza handia, Salbe gauean hain zuzen. Asteke beste egun guztietan, badago Teoremako terrazetan geratzen den jenderik, baina Alde Zaharreko tabernetan nabaritzen den gorakada ez da Groseko tabernetan ikusten.

Taberna honetako bezero gazteak, dantza saio handiak egiten dituzte eta umore nahiz parrandarako gogo aparta erakusten dute. Hauen poteatzeko erritmoa dena den, Alde Zaharrean jendeak ibiltzen duena baino patxarosoagoa da, izan ere, tabernaren izaera ere desberdina bait da. Garagardoa eta coca-cola dira Teorema tabernako bezeroen edari gus-tokoak. Ardoa eskatzen duen gutxi dago hauen artean.

Teorema tabernako bezeroak urte guztian berdinak dira, jabearen esanetan, «egunero doazen koadrilak ohitura dute bertara joateko». Aste Nagusian berriz, jendea su festara joan aurretik, tabernaren kanpoko eserlekuak beteta izaten dira; suak bukatzean berriz, kanpoak nahiz barruak jende gazte betetzen dira.



Endañetak ere jaso zuen bere garaian Igeldoko harria.

Irailera atzeratu dute Igeldoko harria jasotzea

DONOSTIA

Gaur zazpi t'erdietan jokatzekoa zen harrijasotze proba berezia, Igeldoko harriaren jasotzea, irailera atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Harrijasotzaile guztientzat irekia zegoen proba honetan Goenatxok baino ez zuen eman izena, baina honi beste konpromezu bat atera omen zaiola eta, jasotzailerik gabe geratu da Igeldoko harria. Ea irailean proba bitxi hau ikusteko aukera dugun.

Ez da hau Euskal Herrian egiten den harri berezien jasotze proba bakarra. Hainbat lekutan harrobi nahiz itsas ertzetik ateratako harriekin norgehiagokak egiten dira. Proba

hauek interes berezia dute zeren eta harri bakoitzak erronka berezia izaten du. Aurretik harriarekin ez entrenatzeak zailtasun handia ematen dio probari; teknika aldetik, harrijasotzailearentzat harri hauek izaera berezia dute eta normalean nahiko traketak izaten dira.

Igeldoko harria Etxebestek aurkitu zuen eta 174 kilo pisatzen ditu. Urtean zehar Kultura eta Turismo bulegoetan gordeta egoten da. Inor ezin da ibili harriarekin entrenatzen, proba egiterakoan partaideen arteko berdintasuna lortzearen ez zaio inor harriarekin ibiltzeko abantaila eskaintzen. Iaz Goenatxo azkoitiarrak marka onena ezarri zuen harria lau aldiz altxatzean.

Lau bertsolari bakarrik izan dira Aste Nagusian

DONOSTIA

Donostiako bertsozaleek gaur izango dute bertsoak entzuteko azken aukera: Bulebarreko kioskoan eguerdiko ordubatean. Ostegunean Iñaki Murua eta Sebastian Lizasok bertsoaio bikaina eskaini bazuten, eta gaur Jose Lizaso eta Mikel Mendizabal izango ditugu nor baino nor trebeago. Hor bukatzen da Donostiako Aste Nagusiak bertsozaleari eskaini dion egitasmo 'zabal eta aberatsa'.

Lizaso eta Mendizabal bertsolari desberdinak dira; belaunaldi desberdinekoak izateaz gain, bata tradizioaren jarraitzailea dugu eta bestea gaur eguneko korrante berriena.

Jose Lizaso bertsolari tradizionala dugu: afarietan eta koadrila giroan bertsoak botatz bertsolari egin den gizona. Gaur egun bertsozaleen artean ondo merezitako ospea du. Mikel Mendizabalek berriz, hamar urte eman ditu bertsolari eskolak bultzatzen eta Bertsolarien Elkartearen antolakuntzan ere parte hartu zuen.

ASTE NAGUSIKO TXINPARTAK

12.30etan
Traineruen estropadak Kontxako badian.

13.30etan Joxe Lizaso eta Mikel Mendizabal Bulebarreko Zumar-dian.

17.30etan
Haurrentzako jolasak Kaian.

22.45etan su festen azken saioa Garden State Fire-works-en es-kutik.

AURTENGO Aste Nagusiari amaiera emateko, urtero bezala traineru donostiarren arteko estropada jokatu da Kontxan eguerdiko 12.30ak aldera. Estropadak gustatzen ez zaizkien haurrentzat, jai hauetako egun guztietan bezala, jolasak izango dira kaian. Bazkaltzera joan aurretik berriz, aurrez aurrezko bertso saioan ihardungo dute Mikel Mendizabal eta Joxe Lizasok. Aste Nagusiko jaien ekitaldiei, su festekin emango zaie amaiera gaueko 10.45ak aldera.



EKO

EGON GUSTORA !!

ASTE NAGUSIAN

☆ **BETI MERKE**
Loiola kalea, 12
DONOSTIA

☆ **EKO AIETE**
Etxadi Saila
Aiete DONOSTIA

☆ **SUPER AMARA**
Isabel II, A-16
DONOSTIA

EKO